



Helena Taberna bere lantaldearekin.

MARINA PALACIOS

Varados

Ametsen atarian ahaztutakoei so

IRENE ELORZA

Kasualitatez iritsi zen Helena Taberna atzo Zinemira saila ireki zuen *Varados* proiektura. Zaporeak GKEak deituta pieza bat egiten hasi eta errefuxiatu-eremuetako bizimodua ezagutu zuenean piztu zitzaion dokumentala lantzeko beharra. Jakin-min handia sorrarazten zion Grezian gertatzen ari zena, izan ere, Mediterraneoan Europak noiz hartuko dituen zain milaka errefuxiatu egoteak "egoera bereziki maltzurra" iruditzen zitzaion. "Gure zibilizazioaren sehaska izan zen itsasoa hilobi bihurtu da", dio zuzendari nafarrak.

Varados-ek iraupen luzeko errefuxiatuen eguneroko bizitzara hurbiltzen du ikuslea. "Auziari europar kulturak,

arteak eta *intelligentsiak* emandako erantzuna paralisia izan da, baina nik gertatzen ari dena kontatu nahi nuen", dio Tabernak, "ez nekien nolako pieza aterako zitzaidan baina gerrilla-boluntariotza ekintza bat egin nahi nuen". Hala ere, zuzendariak panfletotik urrundu nahi izan duela argitu du, geruza bat baino gehiagoko kontakizuna osatuta.

Kontinente zaharraren ateetan, itxaropenari eta duintasunari eusteko borrokan ari dira errefuxiatuak. Baldintza kaskarretan bizi arren eta nekeak atsekabetuta bizi badira ere, pertsona horien ametsak aurrera darraite, temati. *Varados* iraupen luzeko errefuxiatu horien eguneroko bizitzara hurbiltzen da, errespetuz, eta GKEen lanaren gorazarrean erori gabe. Ate-

naseko eraikin okupatueta nahiz herrialdean zehar sakabanatutako errefuxiatu-eremuetan, bizitzan aurrera egiten utziko dien dokumentazioaren zain jarraitzen dutenei begira jarri da zuzendaria. "Euren bizimodua erakutsi nahi nuen; errefuxiatuei ahotsa ematea premiazkoa da", azaldu du. Dokumentalera jo du horretarako, Agnès Vardak emandako aholkuari jarraituz. "hark zioen fikzio zuzendari guztiek egin beharko luketela dokumental bat, umiltasun ariketa gisa".

90eko hamarkadan zinemagintzan hasi zenetik, Tabernak gizarte gaietan sakondu du fikzio-film nahiz dokumental ugarietan. Euskal gatazkari, memoria historikoari zein genero-indarkerari buruzko gogoetak proposatu ditu bere ibilbidean. Oraingoan, migrazio mugimenduetan jarri du arreta, gizartearen etorkizuna izango direla iritzita.

Zuzendaria ilusioz beteta etorri da Zinemaldira: "Proiektzioak aretoetan egitearen aldekoa naiz, gero eta gehiago", esan du, "beste energia bat egoten da".

Elkano, lehen mundu bira

Elkanoren bigarren lehorreratzea Donostian

I.E.

Malagako (Espainia) zinema-jaialdiko estreinaldian txikota askatu ondoren, eta uztailetik zine aretoetan bidearen zati bat eginda, *Elkano, lehen mundu bira* animazio film luzea atzo porturatu zen Donostia Zinemaldian. Angel Alonsok buru izan duen lantaldearen abenturazko filmak nazioarteko ibilbidean urrats bat gehiago eman du, honenbestez.

Inoizko abenturarik handienetako baten—Magallanesen agintepan hasi eta Juan Sebastian Elkano amaitutako lehen mundu-biraren—kontakizuna

animaziozko film baten bidez egitea oso eginkizun konplikatu izan da Dibulitoon bezalako estudio txiki batentzat, zuzendariak aitortu duenez. "Proiektua orain dela hamabost urte jaio zen baina alboan utzi behar izan genuen; gerora, mundu-biraren bosgarren mendeurrenaren harira berriro ekin genion eta lortu dugu burutzea", dio Alonsok.

Mundu-bira bezalaxe, filma zailtasunez betetako hiru urteko abentura izan da egileentzat. Erronka teknikoak, finantziarioak, eztabaida historizistak, edota estreinaldi garaian karteldegian ekoizpen erraldoekin kointziditzea izan dira *Elkano, lehen mundu bira*

egitasmoaren ekaitzak, goseteak eta aurkako tribuak. Zuzendariak azaldu duenez: "Lantalde oso baten ahalegin itzelaren emaitza da filma eta oso pozik nago lortu dugunarekin".

Elkanoren abentura kontaktzeko osagaietako bat musika izan da eta lantalde horren parte izan dira, besteak beste, soinu-bandaren egile Joseba Berstain konpositorea, musika interpretatu duten Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia, Enrike Solinis antzinako musikan adituaren Euskal Barrokensemble taldea, eta filmeko abestiaren sortzaileak, La Oreja de Van Gogh taldea.



Angel Alonso zuzendaria.

ULISES PROUST

